

4.2.1. Beste ikastetxe batzuekin harremanak sendotzea, esperientziak eta hezkuntza-jardunbide egokiak trukatzea errazteko, eta ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatzea hezkuntza-arloko esku-hartzeak.

4.2.2. Ikastetxez kanpoko erakunde batzuekin lankidetzaren harremanak abian jartzea, ikasleekin esku-hartze hobea bideratzeko.

1. IKASTETXEAREN IRUDIA HEDATZEN DU (DOKUMENTUETAN JASOTA)

- Parte hartutako biltzarrak, jardunaldiak, trukeak, eta abar
- Aurkeztutako ponentzia eta txostenak
- Ikastetxeko aldizkaria
- Artikuluak, beste argitalpen batzuk

2. IKASTETXEKO INSTALAZIOAK ERABILTzea (ERREGISTROA)

- Ikastetxea ireki eta ixteko ordutegia (egiten diren jarduerak).
- Ikastetxeko instalazioak erabiltzea eskatu duten entitateak, erakundeak, pertsonak, eta abar
- Zuzendaritzak instalazioen erabilera baimentzeko (IGE, udala, kultura- eta kirol-erakundeak, eta abar) egindako jardun proaktiboak.

3. IKASTETXEA BERE TESTUINGURUKO GIZARTE- ETA KULTURA-GARAPENEAN INPLIKATzea (ELKARRIZKETA)

- Inguruneak, auzoak, eta abarrek ikastetxeko ekimenetan parte hartzea.
- Eskolatik gidatutako prestakuntza-jardunak, komunitateko kideak inplikaturik (auzo-elkarteak, merkatariak, elkarteak, tokiko erakundeak, eta abar).

4. IKASLEAK ETA/EDO IRAKASLEAK TRUKATZEKO ESPERIENTZIAK (PROIEKTUAK)

- Proiektuetan (Arion, Comenius, Erasmus) parte hartzea
- Ikastetxe Bidaiarietan parte hartzea
- Ikastetxeak babestea, beste ikastetxe batzuekin esperientziak elkartrukatzea
- Beste proiektu batzuk

5. ESPERIENTZIAK SARE-LANEAN (LAN-PLANAK)

- Udalekin (oinarrizko gizarte-langileak, beste udal-talde batzuk), foru aldundiko haur-zerbitzu espezializatuarekin, adingabeen justiziaren jarraipenerako arduradunekin, Eskola Osasunarekin eta etorkinen hainbat erakunderekin jardutea.
- Inguruneko enprekin lankidetzan jardutea.
- Ikastetxea inguratzen duen gizarte-testuinguruaren (elkarteak, saltokiak, profesionalak, erakundeak, eta abar) arabera programak garatzea.